

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

38. zenbakia

Data 2007-02-22

4786 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

Otsailaren 5eko 143/2007 FORU AGINDUA, dirulaguntzak eskatzen dituzten pertsonen zerga-betebeharren informazioa eskuratzeari buruzkoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA

Otsailaren 5eko 143/2007 FORU AGINDUA, dirulaguntza eskatzaileek zerga obligazioak betetzeari buruzko informazioaren lagapena eta informazio hori eskatzeko eta emateko prozedura onartzen dituen

Indarrean dagoen araudiaren arabera, diru laguntzak eskatzen dituzten pertsonen ezinbestekoa dute, besteak beste, zerga obligazioak beteta edukitzea laguntza horien onuradunak izango badira. Gainera, diru laguntza onartu eta ordaintzea ebatzi aurretik frogatu behar dute zirkunstantzia hori.

Aipatutako informazioa lortzeko gaur egun egiten diren egiaztapenak aztertu ondoren, beharrezko ikusi da berariaz arautzea eta diru laguntzei buruzko gaurko legerian ezarrita dauden baldintzei eta beste administrazio batzuek galdatutako eskakizunei egokitzea.

Beharrezko ikusi da arautzea, baita ere, zein prozedura erabiliko den Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak zuzenean eman diezaion diru laguntzen organo kudeatzaileari interesatuak orain arte paperean eskuratu ohi zuen eta organo kudeatzaileari aurkeztu behar zion informazioa. Eskatzaileek eskaerarekin batera edo diru laguntzen ordainketa jaso aurretik aurkeztu behar duten dokumentazioa arindu nahi da horrekin. Horrela, bete egiten da herritarrekiko eta departamentuen artean izan beharreko harremanei buruz Zergen Foru Arau Orokorrean eta gobernu programan jasotakoa.

Hori horrela, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Foru agindu honek arautzen du zein egiaztapen egin beharko diren diru laguntzak eskatzen dituzten pertsonen zerga obligazioak betetzeari buruz eman beharreko informazioaren eduki positibo edo negatiboa eta gainerako beharkizunak zehazteko. Informazio hori eskatu eta emateko prozedura ere arautzen da bertan.

Zati batean nahiz oso-osorik Gipuzkoako Foru Aldundiak edo, araudiarekin bat eginez, foru erakunde autonomoek kudeatu behar dituzten laguntzak eta diru laguntzak emateko prozedurei aplikatuko zaie agindu honetan ezarritakoa, bigarren xedapen gehigarrian jasotakoa eragotzi gabe.

2. artikulua. Eskatzaileen zerga obligazioak.

1. Diru laguntzak onartu eta ordaintzearen ondorio hutsei begira, eskatzaileek zerga obligazioak egunean dituzten jakiteko honako zirkunstantziak betetzen direla egiaztatuko da:

a) Aurkeztuta edukitzea, beharturik baldin badaude, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari dagozkion aitordenak edo autolikidazioak (batarenak edo bestearnak, zerga pertsonal bati edo besteari lotuta dauden pertsonak edo entitateak diren), eta ordainketa zatikatuengatik, konturako ordainketengatik eta atxikipenengatik kasuan kasu bidezko diren aitordenak.

b) Aurkeztuta edukitzea, beharturik baldin badaude, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitordenak edo autolikidazioak.

c) Aurkeztuta edukitzea sarreraren eta ordainketen urteko zerrenda, halakorik egin behar izatekotan.

d) Ez edukitzea Foru Aldundiarekin zerga zorrik edo zigorrak epealdi exekutiboan.

e) Gainera, diruz laguntzen duen organoa foru erakunde autonomoa baldin bada, ez edukitzea erakunde horrekin inolako zerga zorrik, aurreko d) apartatuan ezarritako baldintza berdinetan.

f) Ez edukitzea ordaindu gabe Herri Ogasunaren aurkako delituagatik eratorri eta sententzia irmo batek aitortutako erantzukizun zibilik.

Egiaztapen horien emaitza positiboa bada, emango den informazioak baieztatuko du diru laguntza eskatu duenak zerga obligazioak betetzen dituela. Guztiarekin ere, zerga obligazioak egunean dituztela ulertuko da, baita ere, zorrak edo zigorrak Zergen Foru Arau Orokorrean eta Zergabilketa Erregelamenduan jasotakoaren arabera geroratu edo zatikatu dituztenean eta, orobat, likidazioen aurka jotzeagatik zor edo zigor horiek etetea erabaki denean.

2. Aurreko apartatuko d) e) eta f) letretan aipatutako zirkunstantziak informazioa eskatzen den datan bete behar dira. Aldiz, a), b) eta c) letretan jasotakoak, eskaera egin den hilaren aurreko hamabi hilabeteen barruan aurkezpen epea amaitu zaien aitordenetan bete beharko dira.

3. artikulua. Zerga obligazioak betetzeari buruz eman beharreko informazioaren edukia.

1. Aurreko artikuluko 1. apartatuan aipatu diren zirkunstantziak behin egiaztatuta bidezkoa den informazioa emango da. Emtza positiboa izanez gero, informazio horretan oro har adieraziko da datuen titularrak zerga obligazioak betetzen dituela.

2. Egiaztapen horien emaitza ez bada positiboa egiaztatu beharreko zirkunstantzia guztiei dagokienez, ematen den informazioak gertaera hori jasoko du eta bete ez diren obligazioak ere zehaztuko ditu.

4. artikulua. Zerga obligazioak betetzeari buruzko informazioa eskatu eta emateko prozedura.

1. Oro har, zerga obligazioak egiaztatzeko agiriak diru laguntzen organo kudeatzaileek eskatuko dituzte. Horretarako, unean uneko deialdietan jasota utziko da diru laguntzak eskatzen dituzten pertsonak baimena ematen diotela deialdia egin duen departamentu edo foru erakunde autonomoari zerga obligazioei buruzko informazioa Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuari eskatzeko. Baimen hori diru laguntzak eskatzeko onartzen den eremuan ere agertuko da, eta hala badagokio, berarekin ekarriko du organo kudeatzaileari jakinaraztea zer dela eta ez diren bete zerga obligazioak. Organo kudeatzaileak, bere aldetik, arrazoi berri eman beharko dio diru laguntzaren eskatzaileari, honek bere egoera erregularizatu ahal izan dezan.

2. Eskaera jaso ondoren, informazioa emateko organo eskudunak, esku hartu behar izanez gero, gehienez ere 3 laneguneko epea izango du informazioa diru laguntzen organo kudeatzailearen esku jartzeko. Bestela, berehala emango da informazioa.

3. Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren eta Aldundiko gainerako departamentuen edo foru erakunde autonomoen artean zerga informazioa eskatu eta emateko, baliabide informatiko edo telematikoak erabiliko dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 92. artikulua 2. apartatua jasotakoaren arabera, betiere bidezko protokolo arautzailea aurrez izenpetuta exijigarri diren baldintza eta betebeharrei jarraikiz.

Baldintza teknikoek araudi honetan jasotako informazioa ematea ahalbidetzen duten heinean, diru laguntzak kudeatzen dituzten departamentu edo organismoek ezingo diote eskatu Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuari beste ezein agiri motarik egin dezan, ez departamentuari berari zuzenean, ez beraiek kudeatutako diru laguntzen eskatzaileei.

5. artikulua. Ematen den zerga informazioaren ondorioak.

1. Aurreko artikuluetan jasotakoaren arabera prestatutako informazioak bertan adierazten diren ondorioak izango ditu soilik, eta ez du sortuko eskubiderik edo eskubide aukerarik ez eskatzailearen alde ez hirugarren baten alde, ez ditu preskripzio epeak etengo edo geldiaraziko, eta ez du balio izango hari lotuta dauden prozedurak jakinarazteko.

2. Nolanahi dela ere, bere edukiak ez du eraginik izango geroago egin litezkeen egiaztapen edo ikerketa jardueren emaitzan.

3. Informazioa eman ondoren, sei hilabeteko balioa izango du, ematen den egunetik kontatzen hasita.

Horrela, ordainketa egitea ebazten bada informazioa ematen denetik hasi eta hurrengo sei hilabeteetan, ez da beharrezkoa izango zerga obligazioak betetzeari buruzko informazioa eguneratzea diru laguntza ordaindu aurretik.

6. artikulua. Eman beharreko informazioaren euskarri fisikoa.

Informazioa baliabide telematiko edo informatikoen bidez emango da beti, eta inprimatu ahal izango da paperean jasota edukitzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Beste zerga administrazio batzuekiko zerga obligazioak bete direla egiaztatzea.

Diru laguntza eskatzen duenak beste zerga administrazio batzuetan tributatzeko obligazioa badu, agiri bidez frogatu beharko du foru agindu honen 2. artikuluan aurreikusitako zerga obligazioak haiekiko betetzen dituela.

Bigarrena. Zerga obligazioak egiaztatzea beste administrazio eta erakunde publiko - batzuek kudeatzen dituzten diru laguntzak eskatzeko.

Zerga obligazioak betetzen direla egiaztatzearen helburua beste administrazio edo erakunde publiko batzuek kudeatutako diru laguntzen onuradun izatea bada, eman beharreko informazioa foru agindu honen 2. artikuluan aipatutako egiaztapenetatik aterako da, non eta kasuan kasuko diru laguntzari aplikagarri zaion araudiak ez duen exijitzen 2. artikuluan jasota ez dauden beste alderdi batzuk egiaztatzea. Kasu horretan, exijitutako informazioa Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak araututako prozeduren eta moduen arabera eskatu eta lortu ahal izango da.

Informazioa interesatuak berak eskatzen badu, gehienbat zerga obligazioak bete izanaren ziurtagiriaren bitartez emango dira datuak, non eta diru laguntzari aplikatzen zaion araudiak ez duen exijitzen informazioa beste agiri batean jasotzea.

Diru laguntza kudeatzen duen administrazio edo erakunde publikoak zuzenean eskatzen badu informazioa, datuak baliabide telematiko edo informatikoen bidez emango dira, bidezko lankidetzaren hitzarmena aurrez izenpetuta baldintza eta betebeharrak exijigarri jarraikiz, eta beti egongo da informazioa paperean inprimatzea obligazioak bete izanaren frogagiri moduan.

AMAIERAKO XEDAPENA - INDARREAN JARTZEA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2007ko otsailaren 5a.—Juan Jose Mujika Aginagalde, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatua.

(115) (1966)